



HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal



AKORDIO BATERAKO PROPOSAMENA IRAKASLE FUNTZIONARIOEN MAHAI SEKTORIALA (2018/05/14)

Hezkuntza Sailak 2017ko irailaren 23ko Mahai Sektorialean aurkeztu zien sindikatuei "Akordio baterako proposamenak" izeneko lehen dokumentu bat, eta urte bereko abenduaren 20an bigarren bat, aurrekoa baino garatuago eta aberatsagoa. 2018ko urtarrilaren 26ko Mahaian azken dokumentuaren balorazioa egin zen. Geroztik, eta tartean negoziatioari eutsiz, Mahai Sektorialaren beste bi batzar izan dira: apirilaren 18an, non akordio-proposamenaren bertsio zabalago, sakonago eta zehatzagoa aurkeztu zen, eta azkenekoa, maiatzaren 4an. Parte sozialaren aldetik zenbait puntu berrikusi eta egutegia eta berme-mekanismoak gehiago zehazteko eskatu zen.

Gaur ekartzen den dokumentu honek eskaera horiei eman nahi die erantzun, eta oinarrizko lehen adostasun zabal bat jaso eta akordio global eta zabalagoetara ailegatzeko abiapuntu izateko asmoz eta gogoz aurkeztzen da.

Proposamena lau atal orokorretan eta hamalau azpialat zehaztetan planteatzen da.

ENPLEGUA, BEHIN-BEHINEKOTASUNA ETA EGONKORTASUNA

1. Lan eskaintza publikoak
2. Behin-behinekotasuna gutxitzeko neurriak
3. Bitartekoen egonkortasuna
4. Hezkuntza-administrazioaren prozesu nagusien maiztasuna

ORDEZKAPENAK: ERREGIMENA, ZERRENDAK ETA KUDEAKETA

5. Ordezkapenak
6. Ordezkoen zerrendak

LANGILEEN PLANTILAK IKASTETXEETAN

7. Maisu-maistren plantilak indartzea Haur Hezkuntzan
8. Irakasle-plantilak indartzea ikastetxeen beharren indizearen arabera
9. Irakasle-plantilak Lanbide Heziketan
10. Administrazio-langileak ezartzea Haur eta Lehen Hezkuntzan

IRAKASLEEN LAN-BALDINTZAK

11. Ordu lektiboan murrizketa adinagatik
12. Aldi baterako ezintasunen osagarria
13. Lizentziak, baimenak eta beste
14. Bateragarritasuna





ENPLEGUA, BEHIN-BEHINEKOTASUNA ETA EGONKORTASUNA

1. LAN ESKAINTZA PUBLIKOAK

Hezkuntza Sailak bere egiten du behin-behinekotasuna ahal den guztia jaistearen helburua.

Behin-behinekotasuna jaitsi eta Hezkuntza Sistemari egonkortasun handiagoa emateko neurri eranginkorrena delakoan, Hezkuntza Sailak, 2017-2020 legegintzaldian eta irakasleen kidegoetan, gutxienez 5.000 lanpostuko Lan Eskaintza Publikoak egiteko konpromisoa azaldu du, ahalik eta lanpostu gehienak deitzeko helburuari eutsiz, unean uneko araudiak eskaintzen dituen bide guztiak agortuko dituen konpromisoarekin batera.

Honela banatuko lirateke LEP deialdiak urtez urte gaur egungo baldintzen arabera:

- 2017an jada maisu-maistren kidegoko 740 lanpostu deitu ziren hautaketa-prozesuetarako.
- 2018rako Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoetako 1.511 lanpostu daude deituta.
- 2019ko Lan Eskaintza Publikoari buruz, zera aurreratu daiteke: behin 2018ko erreposizio-tasa estimatu ondoren, 1.800 lanpostu ingurukoa izango da eta Maisu-maistren kidegoari zuzendua. Halaber, Irakaskuntza Espezializatuak (Hizkuntz Eskola Ofizialak, Musika Kontserbatorioak...) kidegoetako beste 95 lanpostu ere eskainiko dira.
- 2020 urtean, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa eta Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoak konbokatuko lirateke berriro, guztira 850 lanpostu inguru.

Ildo horretatik, arestian Estatu-mailan hitzartutako akordioa indarrean jartzen denean, Hezkuntza Sailak irakasleen kidegoetako beste 500 lanpostu eskaini ahal izango ditu legegintzaldi honetan zehar.

Azkenik, konsolidazio-prozesuak egiteko aukera aztertuko da, unean-unean indarrean dagoen araudiak horretarako utz dezakeen edozein zirrikutu baliatzeko asmoarekin.

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

- Mahai Sektorialean edota Planifikazio Batzordean aztertu eta negoziatuko dira arauz hala eskatzen duten prozesu eta gai guztiak.

2. BEHIN-BEHINEKOTASUNA GUTXITZEKO NEURRIAK

Behin-behinekotasuna gutxitze aldera Lan Eskaintza Publikoen konpromiso nagusiar eutsiz, eta sistemak duen behin-behinekotasun estrukturala minimoetara eramateko helburuarekin, beste neurri garrantzitsu batzuk ere abiatuko ditu Hezkuntza Sailak.

- ZERBITZU-EGINKIZUNEN** hornikuntza-modua egokitze aldera, bakarrik salbuespenezko eta araututako kasuetara mugatuko da, Sailak azken urteotan daraman jardun-ildoari eutsiz.
- LEHIAKETA-PROZESUEI** ekingo zaie, laguntza-zerbitzuetako lanpostuak (gaur zerbitzu-eginkizunetan daudenak) behin betikoz bete daitezela.

1. fase batean:



- o Euskalduntze-zerbitzuak: IRALE eta BARNETEGIAK
- o Laguntza-zerbitzuak: BERRITZEGUNEAK eta INGURUGELAK

2. fase batean, behin LZ dekretua argitaratuta:

- o IKUSTEKO URRITASUNA DUTEN IKASLEENTZAKO BALIABIDETEGIAK (CRI)
- o OSPITALEKO ETA ETXEKO HEZKUNTZA-ARRETARAKO ETA ARRETA TERAPEUTIKO-HEZIGARRIRAKO LURRALDE-ZENTROAK

Lanpostu zerrenden sortzea edo eraldatzea dakarten prozesuek Euskadiko Aurrekontu Orokorren Legean berariaz jasota egon behar dute. Halako kasuetan, beraz, lehenik aurrekontuetan jasotzeko proposamena bideratuko da; gero, Legebiltzarrak aurrekontuen legea onartzen badu, kasuan kasuarako LZ dekretua jarriko da tramitepean.

C. LANPOSTU BEREZIEN LEKUALDATZE-LEHIAKETA egingo da:

- o Lehen fase batean, 2018-19 ikasturtean, lanpostuetako batzuk eskainiko dira
- o Bigarren batean, 2019-20 ikasturtean, gainerako guztiak, hau da, Urrutiko Hezkuntzarako Euskal Institutua UHEI-IVEDekoak (dekretua tramitepean dago).

D. BERRAZTERTZEA proposatzen da ikastetxeen ordu-kredituen sistema, jardunaldi partzial ugariak (> 1.300 lanpostu ikasturte-hasierako esleipenetan) eta jardunaldia murrizteko lizentziak, behin-behinekotasunean duten eraginagatik.

Neurri hauek gauzatzeak, behin-behinekotasuna zuzenean murrizteaz gainera, aukera emango du guztira 500 lanpostu inguru askatzeko, zeintzuk lekualdatze-lehiketara eskaini ahal izango diren. Gainera, prozesu horien ondoriozko bakanteek, azken hiru urteetan bitarteko irakasle bidez bete badira, eta legezko aukera horrek indarren irauten badu, ordura arte egindako lan-
eskaintza publikoen lanpostu-kopurua handituko dute.

E. LANPOSTU-ZERRENDAK EGOKITZEA

Hezkuntza Sistemari urtetik urtera dauden gorabeherek (matrikulazioa, aukerako jakintzagaiak...) aldaketak eragiten dituzte lanpostuen kopuru eta distribuzioan, eta urtero argitaratzen den LZ dekretuak lanpostu horien egokitzapenak jasotzen ditu. Alabaina, bada neurri bateko desfase bat LZko lanpostuen eta sistemak *de facto* behar guztiei erantzuteko dituen lanpostuen artean, ahal den heinean minimizatu nahi dena. Helburu hori betetze aldera, urtero argitaratzen den LZ dekretuan, Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzak estrukturaltzat jotzen dituen lanpostuak jasoko dira.

2018an jadanik, Bigarren Hezkuntzako 160 lanpostu (Kirolenen 7, Dantzertin 17 eta Bigarren Hezkuntza + Lanbide Heziketan 136) azaleratuko dira LZ berrian, behin 2018rako Aurrekontuen Legean jasota geratu direlarik. Lanpostu Zerrenda berria dekretu bidez tramitatuko da eta 2018ko udazken aldera argitaratuko da, ohikoa den bezala.

2019rako, gaur egungo estimazioen arabera, ondoko lanpostuak azaleratuko dira LZn:

- 198 lanpostu Haur eta Lehen Hezkuntzan
- IKUSTEKO URRITASUNA DUTEN IKASLEENTZAKO BALIABIDETEGIAK (CRI): 45
- OSPITALEKO ETA ETXEKO HEZKUNTZA-ARRETARAKO ETA ARRETA TERAPEUTIKO-HEZIGARRIRAKO LURRALDE-ZENTROAK: 55
- Lanbide Heziketako zerbitzuak

Lanpostu horiek guztiak LZn jasotzeak ondoko lekualdatze-lehiaketetara eta lan-
eskaintza publikoetara lanpostu gehiago atera ahal izatea dakar ondorio zuzen bezala, horrek ere behin-





behinekotasunaren jaitsieran izango duen eraginarekin.

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

- Behin-behinekotasuna: 2018ko otsaileko Planifikazio Batzordean, behin datuak eta dokumentazioa eman ondoren, ekin zitzaien gai honen inguruko azaleko hurbiltze bati. Planifikazio Batzordean aztertzen jarraituko da 2017/18 ikasturtean zehar.
- Planifikazio Batzordean datuak aurkeztu, aztertu eta LZen egokitzapenak negoziatuko dira, eta arauzko prozedurari eutsiz Aurrekontuen Legean jaso daitezkeen proposatuko da, gero LZ dekretu berriari ager daitezkeen.

3. BITARTEKOEN EGONKORTASUNA

Hezkuntza Sailak, atal honetan ere azpimarratu nahi du berea egiten duela behin-behinekotasuna ahal den guztia jaistean helburua, sistemari eta langileei egonkortasuna emateko bide egokiena delakoan.

Alabaina, Hezkuntza Sistemaren urtetik urtera gertatzen diren aldaketak eta gora-beherak, eta, beti egongo da neurri bateko behin-behinekotasun maila bat. Errealitate hori aintzat hartuz eta ikastetxeetako proiektu batzuen garapenerako klustrokideen egonkortasuna, aldi baterako izan arren, mesedagarria delakoan, proposamen hau egiten du Hezkuntza Sailak.

Proposamenaren planteamendu orokorra honakoa da: lanpostu hutsak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioak lanpostu horietan mantendu ahal izatea harik eta postua arauz bete ondoren funtzionario titularra itzultzen den arte. Horren mesedetan, urtero gauzatzen diren prozesuen (lekualdatzea, LEP...) aldikotasuna berraztertuko da.

Bitartekoen egonkortasunak, gainera, erraztu egingo du bitartekoen eta funtzionario karreradunen lizentzia eta baimen batzuen ekiparazioa.

Hezkuntza Sailak 2017ko ekainaren 23ko Mahai Sektorialean aurkeztu zituen "Bitarteko irakasleen eta Hezkuntza Sailaren ikastetxeen egonkortasuna / finkapena" dokumentua eta lan-proposamena.

Gaurko egoeran, neurri honek egonkortasuna emango lieke 2.500etik gora interinori.

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Gai honen eztatidari 2018ko maiatzean berrekingo zaio Planifikazio Batzordean, batzorde horren otsaileko bileran adostuta geratu bezala. Planifikazio Batzordean aztertuko dira aipatu dokumentuan proposatutako aukera desberdinak, egonkortze-prozesuen xehetasunak eta sindikatuek mahaigaineratutako ekarpenak eta beste edozein proposamen.

Aplikazioari dagokionez, akordioa egon eta garaiz izanez gero, 2018/19rako "0 esleipen" bat egingo litzateke (finkapenari uko egiteko aukera emanez), 2019/20an sistema berria abiatzeko.

4. HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN PROZESU NAGUSIEN MAIZTASUNA

Lan eskaintza publikoek, lekualdatze-lehiaketek, kandidatoen birbaremazio prozesuak edota ikasturte hasierako irakasle interinoren esleipenak gaur egun urtero burutzen diren prozesuak



dira. Ezin da ukatu maiztasun horrek mugimendu asko eragiten dituela klaustroen plantiletan, eta ez duela jokutzen, hain zuzen, sistemaren egonkortasunaren mesedetan.

Hori guztia aintzat hartuz, Hezkuntza Sailak, klaustroen beharrezko egonkortasuna eta langileen eskubideak egokiro uztartu eta orekatze aldera, prozesu horien maiztasuna berraztertzea proposatzen du.

- Lan Eskaintza Publikoak: legegintzaldi honetako LEPen plangintzari eutsi egingo zaio, 1. azpiatalean ("Lan Eskaintza Publikoak") azaldu bezala. Gerora begira, kidego bakoitza 3 edo 4 urtean behin deitzeko aukera aztertuko da, edo gaur eguneko planteamenduari eusteko komenigarritasuna.
- Kandidatoen birbaremazioa: urtero egingo da, orain egiten den bezala.
- Lekualdatze-lehiaketa, bi aukera aztertzea proposatzen da:
 - a) bi urtean behin egin (estatu-mailakoa bakarrik izango litzateke, derrigorrezkoa baita)
 - b) oraingo sistema mantendu, urtero estatu- eta erkidego-mailakoak txandakatuz
- Ikasturte hasierako interinoen esleipena: urtero eta telematikoa izango da (2018ko irailetik aurrera)

Prozedura, egutegia eta aplikazioa

Planifikazio-batzordean, 2018an zehar, aztertu eta negoziatuko da planteamendu orokorra, kasuan kasuko xehetasun guztiekin batera.

ORDEZKAPENAK: ERREGIMENA, ZERRENDAK ETA KUDEAKETA

5. ORDEZKAPENAK

Gaur egun indarrean dugun ordezkapenen erregimena 2007ko lan-baldintzen akordiotik dator, eta 2010eko akordioan termino beretsuetan jasota geratu zen. Hamar urte pasa ondoren aldatu gabe (nahiz-eta bitartean estatuko oinarrizko araudiak besterik agindu), ikastetxeen funtzionamenduaren eta hezkuntzaren kalitatearen mesedetan proposamen hau aurkezten da.

Une honetan, Haur Hezkuntzan eta hainbat kasu zehatzetan, lehen egunetik betetzen dira.

Aurrerantzean, **ordezkapenak etapa guztietan lehen egunetik** egingo dira.

Neurri hau indarrean jartzeak, duen garrantzia eta dimentsioagatik, eskolako eragile guztien konpromisoa eskatzen du, ordezkapenen kudeaketa zuzena eta ikasleen arreta egokia izan daitezen. Administrazioak, bere aldetik, ordezkapen guztiak lehen egunetik, eta edozein kasutan ahal bezain laster, bete daitezten ahaleginak eta bitartekoak jarriko ditu. Ikastetxeek, beretik, zuzendaritzen, ziklo-koordinatzaileen (HHn eta LHn), departamentu-buruen (BHn) eta irakasle guztien inplikazioa behar dute, eta bereziki, bere lanpostura etorri ezin diren irakasleena, neurriak ezartzea bermatuz ordezkari eta zaintzako irakasleei lana erraztu —gaur egun ikastetxe askotan ohiko praktika den bezala—, eta ikasleek etenik izan ez dezaten euren ikaskuntza-prozesuan.

Konpromiso hori berretsi eta ausentzia/ordezkapen egoerak egokiro kudeatze aldera, ordezkapenen arreta-protokolo bat garatuko da.

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Irakasuntza
Uribitarte 19001 - BILBAO

UGT
ESP
Zerbitzu Publikoak
Enseñanza

steilas

Araba
Eulogio Serdán 5 - 01012 Gastiella
945 14 11 04 e 945 14 43 00
araba@steilas.eus

Irakasuntza

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Ordezkapen-erregimen berri hau lan-baldintzen dekretua moldatu bezain laster jarriko da indarrean.

6. ORDEZKOEN ZERRENDAK

Sarritan aipatu denez langileen ordezkarien aldetik, ez dago benetako aukera berdintasunik ordezkapenentarako kandidato izan nahi dutenen artean, zerrenda batzuk irekitzen direlako (premia dagoenean), eta beste batzuk, ordea, ez direlako irekitzen (kandidato nahikoa dagoelako).

Neurri batean espektatiba faltsuak sortzeko arriskua egon daitekeela onartuz, baina egoera horri erantzun egokiagoa eman eta kudeaketa hobetu nahian, zera proposatzen da:

- Irekitzen diren zerrendak irekita mantentzea, jada une honetan egiten ari garen bezala.
- Zerrendak kidegoka irekitzea LEP bat aurreikusita dagoen ikasturtean (esaterako, 2019an maisu-maistren kidegoko eskaintza egiten bada, Haur eta Lehen Hezkuntzako zerrendak irekitzea).
- Ondorioz, 2020an zerrenda guztiak irekita egongo lirarteke.
- Zonaldekako sistema aztertu eta, bideragarria bada, garatu eta abian jarri
- Kudeaketa telematikoa aztertu eta, bideragarria bada, garatu eta abian jarri
- Kandidatoen agindu berria landu

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Orain jadanik aplikazioan dauden erabakiez aparte (zerrendak irekita mantetzea), Hezkuntza Sailak Planifikazio Batzordera eramango ditu besteetarako proposamenak 2018/19 ikasturtean zehar han aztertu eta negoziatzeko.

LANGILEEN PLANTILAK IKASTETXEETAN

7. MAISU-MAISTREN PLANTILAK INDARTZEA HAUR HEZKUNTZAN

HAUR HEZKUNTZAN, 3 URTEKO GELETAN: Kontuan hartuta lan-baldintzen akordioan 3 urteko gelek ez dutela, 2 urtekoek duten bezala, laguntza-neurririk, eta ratio-salto nabarmena dagoela 2 urteko geletatik (18) 3 urtekoetara (23), gela hauen kudeaketa hobetu eta maisu-maistren lan-karga arintzeko asmoz, irakasle gehigarrien bitartez plantila indartzea proposatzen da:

Ratioa batezbesteko 20tik gorakoa denean, irakasle gehigarriak jartzea ondoko irizpideen arabera:

- 1 edo 2 talde daudenean: jardunaldi 1/2
- 3 edo 4 talde daudenean: jardunaldi (maisu-maistra) 1
- 5 talde edo gehiago daudenean: jardunaldi 1 eta 1/2



Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Neurriak, akordioa bitarteko, 2018/19 ikasturtean jarriko dira martxan.

8. IRAKASLE-PLANTILAK INDARTZEA IKASTETXEEN BEHARREN INDIZEAREN ARABERA

Agerikoa da oso egoera konplexuak bizi dituztela ikastetxe eta ikasgela batzuk. Faktore desberdinen eraginez egoera bereziki zailak dituzten ikastetxe eta ikasgela horiei laguntza gehigarria eskaintzeko proposamena egiten du Hezkuntza Sailak, irakasleen lan-karga arindu eta hezkuntza-kalitatearen mesedetan.

Ikasketen ebidentziei eta adituen iritziei eutsiz, **Hezkuntza Beharren Indizea (HBI)** ari da antzuten Hezkuntza Saila.

Indize horren hasierako lanketa batean, Hezkuntza Ikuskaritzak eta Irakas Sistema Ebaluatzeko eta Ikertzeko Erakundeak (ISEIk) ondoko 8 faktoreak hartu dituzte kontuan, bakoitzak hezkuntza-lorpenetan duen eraginaren arabera pisuarekin:

- eskola-emaizak 6 kompetentzian
- Indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK)
- ikasleen eta gurasoen jatorria
- errepikatzaile-kopurua
- berriazko hezkuntza-laguntzako ikasle-kopurua
- ikaslearen ikasturte-kopurua ikastetxe berean
- bekadunen kopurua
- irakasleen egonkortasuna ikastetxean

Indize hori aplikatuko da ikastetxeak eta ikasgelak hezkuntza-beharren arabera identifikatu eta laguntza gehigarriak irizpide horren pean esleitzeko, irakasle guztiek baldintza berdintsuetan eta modurik ahalik eta egokienean bete dezaten euren funtzioa. Laguntza gehigarriak

ikastetxeetan helburu zehatz horretara bideratuak izan daitezten, eta beste argibide batzuk emate aldera, araubide-zirkular bat helaraziko zaie ikastetxetako zuzendaritzei.

Indize horren arabera, ondoko neurriak hartuko dira:

LEHEN HEZKUNTZAN:

- indize oso altuko ikastetxeetan (hau da, 20-25 tramoko 41 ikastetxeetan), lerroko jardunaldi (maisu-maistra) gehigarri bat jarriko da, zailtasun handieneko taldeetan laguntzeko.
- indize altuko ikastetxeetan (hau da, 15-20 tramoko 83 ikastetxeetan), lerroko jardunaldi erdi gehiago jarriko da, helburu berberarekin.

• DBHn. Bigarren fase batean:

- DBHko 1. eta 2. mailetan, indize oso altuko ikastetxeetan (hau da, 20-25 tramoko 21 ikastetxeetan), 2018-19 ikasturtean zehar irakasle gehigarriak jarriko dira
- 2019-20 ikasturtean, eta neurri horiek eraginkorrak eta egokiak jotzen badira, DBHko 3. eta 4. mailetan
- DBHn, irakasle gehigarriak gai tronkalak bikoizteko jarriko dira

Proposatzen diren neurri hauek pertsonal arlokoak dira eta irakasle plantiletan dute eragin zuzena. Alabaina, azpimarratu beharra dago Hezkuntza Sistemari oro har, eta bereziki egoera



zailak dituzten ikastetxe eta geletan, hezkuntza-helburuak lortze aldera gainerako beste neurri batzuk ere abiatu behar direla, hala nola, metodologia berritzaileak, berariazko prestakuntza eta antolakuntza modu berriak, besteak beste.

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

- Hezkuntza Beharren Indizearen aplikazioaren ondoriozko neurriak LHn 2018-19 ikasturtearen hasieratik abiatuko dira.
- DBHko lehenengo 1. eta 2. mailetan 2018-19 ikasturtean zehar abiatuko dira.
- DBHko 3. eta 4. mailetan, 2019-20 ikasturtean abiatuko dira, neurriaren egokitasuna baloratu eta kasuan kasuko moldaketak egin ondoren.

Neurrien garapena eta egokitasuna Hezkuntza Saila (Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza, Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritza, Hezkuntza Ikuskaritza eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza) eta sindikatuen artean aztertuko dira Segimendu Batzordean 2018-19 ikasturtean zehar, eta euren jarraipena eta balorazioa egingo da.

Bestalde, ikastetxeen eta ikasmilen beharren indizea ikasturtero birkalkulatuko da, neurriak unean uneko egoerara egokitze aldera.

9. IRAKASLE-PLANTILAK LANBIDE HEZIKETAN

Lanbide Heziketak, euskal hezkuntza sistamarako eta euskal gizartearentzat duen aparteko garrantzia aintzat hartuz, eta oinarrizko hezkuntzatik datozkien ikasleen hizkuntz-profilari eta hobeto egokitze aldera, apostu estrategikoa egin du Lanbide Heziketako irakaskuntzak, modu progresiboan baina erabakizun argiz, euskalduntzeko xedearekin.

Gauzak horrela, eta lehen neurri gisa, bai Lanbide Heziketaren Euskalduntze Planak eta bai Heziketa Dualaren garapenak ere irakasle-plantilen egokitzea eskatzen dute.

- Lanbide Heziketaren Euskalduntze Plana: 22 irakasle 2017-18 ikasturtetik aurrera (78 irakasle gehiago 2017tik 2020ra bitartean)
- Lanbide Heziketa Duala: 38 irakasle gehiago 2017-18 ikasturtetik aurrera

Izan ere, Lanbide Heziketako 60 (22+38) lanpostu horiek irakasle-plantilan gehitu dira 2017-18 ikasturtean, eta LZ/RPT berrian islatuta agertuko dira, behin 2018rako Aurrekontuen Legean jasota geratu direlarik. Gainerako lanpostuetarako prozedura berari ekingo zaio 2019an eta 2020an.

10. ADMINISTRAZIO-LANGILEAK EZARTZEA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN

Gaur egun Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako administrazio-lanak maisu-maistrek (guztira 191, jardunaldi erdian edo osoan ikastetxearen talde-kopuruaren arabera) betetzen dituzte, Bigarren Hezkuntzan gertatzen ez den bezala, horietan administrazio-laguntzaileak baitaude.

Zera proposatzen da: ardura administratiboen lanpostuak sortu eta Lanpostu Zerrendan jasotzea. Era horretara, maisu-maistrek euri ez dagozkien ardurak baztertu eta berezkoa duten hezkuntza-jarduerari eutsi ahal izango diote osotasunean, hala nola zuzendaritzek



lidergo pedagogikoari, ikastetxeen administrazioaren eta heziketaren onerako.

Proposamena:

- 7 eta 15 gela bitarteko ikastetxeetan, administrazio-laguntzailea, jardunaldi 1/2
- 16 gelatik gorakoetan: administrazio-laguntzaile 1
- Lanpostu zerrendak modu progresiboan sortzea
- Lanpostu batzuk bi ikastetxek partekatzea.

Proposamen honen aplikazioak ez du eraginik izango zuzendaritzarako lan-baldintzen akordioan ezarrita dauden ordu-kredituetan, ikastetxearen talde-kopuruaren arabera.

Neurri honen berezitasuna dela-eta, eta eraldaketa modu gradualean egiteko asmoz, Hezkuntza Sailak sindikatuekin negoziatuko du bitarteko irtenbide bat, eta ahalegin guztiak egingo ditu gaur egun administrazio-kudeaketa funtzioak dituzten irakasleek, euren nahi izanez gero, funtzio horiek egiten jarrai dezaten lanpostu horiek betetzen diren arte.

Bestalde, adinagatiko jardunaldi-murrizketa duten irakasleek batetik, eta osasun-arrazoia direla medio irakaskuntzarik ez duten irakasleek bestetik, jarduera administratibo horien ardura hartzeko aukera aztertuko da.

Gerora begira bide berbera urratzea proposatzen da irakaskuntza-funtzioak betetzen ez dituzten beste kolektibo batzuekin, esaterako, IKT-arduradunekin.

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Hezkuntza Sailak 2018an zehar sindikatuekin aztertuko du Planifikazio Batzordean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan administrazio-laguntzaile lanpostuak sortzeko aukera, eta zehaztuko du ikastetxe bakoitzaren dotazioa.

Administrazio-laguntzaileak 2019-20 ikasturtean hasiko lirakeke lanean ikastetxe horietan.

IRAKASLEEN LAN-BALDINTZAK

11. ORDU LEKTIBOEN MURRIZKETA ADINAGATIK

Proposamen honen helburu nagusia da aurretiazko borondatezko erretiro-aukerarik ez duten adin batetik aurrerako langileei lan-karga arintzea, belaunaldi-erleboia ere sustatzearekin batera.

Hauxe da proposatzen dena:

- Aurretiazko borondatezko erretiro-aukerarik ez duten 60 urtetik gorako irakasle funtzionario karreradunentzat: 1/3ko murrizketa ordu lektiboetan
- Haur eta Lehen Hezkuntzan, 59 urtetik gorako irakasleentzat (funtzionario karreradun zein bitartekoentzat): 2 orduko murrizketa asteko ordu lektiboetan

Kasu guztietan, murrizten dena jardunaldi lektiboa da, eta ez lan-jardunaldia. Murrizketa-ordu horiek zuzendaritzaren esku eta ikastetxearen zerbitzuan jarriko dira, besteak beste, kudeaketa-lanetarako eta ikasleen arreta zuzenerako ez diren beste jarduera batzuetarako.



Urribitarate 4 - 48001 - BILBAC



Enseñanza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Araba
Eulogio Serdán 5 - 01012 Gasteiz
☎ 945 14 11 04 ☎ 945 14 43 02
araba@steilas.eus



Ordu lektiboen murrizketa baliatu nahi duen irakasleak, irailaren 1ean baldintzak betetzeaz gainera, berariaz egin beharko du eskaria, zehaztuko den moduan eta epean, ordu-kopuru horiek ikasturte berrirako plangintzan kontuan hartuak izan daitezen, eta beste irakasle batzuei esleituak (ordezkapenarekin izango dira, beraz).

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Akordiora ailegatuz gero, ordu lektiboen murrizketak 2018-19 ikasturtearen hasieratik aplikatuko dira.

Ordu lektiboen murrizketa bitarteko irakasleei zabaltzeko aukera zein baldintzatan emango den berehala eta gehienez sei hilabeteko epean aztertu eta negoziatuko da, eta ahalik eta ariena aplikatuko da.

12. ALDI BATERAKO EZINTASUNEN OSAGARRIA

Zera proposatzen da: irakasle funtzionarioen lan-baldintzen akordioak barne hartzen dituen langile guztiak aldi baterako ezintasun-osagarriaren %100 jasotzea ahalbideratzea lehen egunetik eta kasu guztietan.

Gaur egun, ondoko dekretua da arlo hau arautzen duena: *3/2014 DEKRETUA, urtarrilaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile publikoek aldi baterako ezintasun-egoeran daudenean eta jakineko baimen batzuk dituzten aldietan jasoko dituzten lansariak eta borondatezko hobekuntzak onartzeko dena.*

Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean salbuespen-katalogo bat aurkeztu zen aldi baterako ezintasun ia guztiak jasotzen dituen. Alabaina, eta irakasleen lanaren berezitasunak aintzat hartuz, Hezkuntza Sailak dekretu horren moldaketa eskatuko du, salbuespenen atalean termino hauetan jasota gera dadin:

"Irakasle funtzionarioen aldi baterako ezintasun-prozesuetan, pertsonal horren eginkizun propioen espezialitatea eta ezaugarriak direla-eta."

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Hezkuntza Sailak Mahai Sektorialaren eskaerari bide emanez, 3/2014 dekretuaren moldaketa eskatuko dio Gobernantza Publikoa eta Autogorbenuaren Sailari.

Neurri horren aplikazioa Administrazio Orokorreko indarrean jartzen den unetik aurrera gauzatuko da, 2018-19 ikasturte berriaren hasieratik.

13. LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA BESTE

Puntu honi, dagokienez 3 ildo planteatzen dira:

- Lizentzia eta baimen berriak administrazioko langile guztientzat
- Funtzionario karreradunen lizentzia eta baimen batzuk bitartekoei zabaltzea
- Beste: egoera administratiboak

**Lizentzia eta baimen berriak administrazioko langile guztientzat**

- Familia-kontziliaziarako, haurrak urtebete egin aurretik, 12 asteko eszedentzia hartu nahi duten aitei edo amei soldata-oinarriaren %100 ordainduko zaie, baldin eta baimen hori ez bada amarenarekin batera hartzen.

Administrazio Orokorrean aurkeztu diren ondoko hiru baimen-motak, zuzenean aplikatuko dira dekretu bidez indarrean jartzen diren uenean:

- Guraso-baimenak: bikoteko bi kideei baldintza berdinetan, % 100ean ordainduak.
- Urtebetetik beherako semea edo alaba zaintzeko baimena: guraso-baimenari gaineratuko zaio, eta bikoteko edozeinentzako, orduka, edota lanaldi osoetan. Nolanahi ere, guztira segidako 150 ordu gehitu ahal izango zaizkio gehienez guraso-baimenari.
- Lehen mailako senideak zaintzeko baimenak

Funtzionario karreradunen lizentzia eta baimen batzuk bitartekoei zabaltzeaz

Lan-baldintzen akordioko ondoko artikulua aztertzea proposatzen da:

- 51. artikulua: betetzen den funtzio edo lanpostuarekin zuzenean erlazionatuta dauden lanbide-trebakuntzako ikasketak egiteko baimena.
- 52. artikulua: lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko zerikusirik ez duten ikasketak egiteko baimena.
- 56. artikulua: goi-mailako kirolariak barne hartzea nazioarte-mailako lehiaketetarako.

Beste: egoera administratiboak

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia irakasle bitartekoei funtzionario karreradunen termino eta baldintza berberetan aplikatuko zaie, ikasturte osoko plaza betetzen ari badira.

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

- Administrazio Orokorrekoak: indarrean jartzen direnean aplikatuko dira.
- Planifikazio Batzordean beste lizentzia, baimen eta beste baldintza batzuen azterketa egingo da.

14. BATERAGARRITASUNA

Derrigorrez jardunaldi partziala duten irakasleei euren jardunaldia osatzen baimenduko zaie, Bateriaezintasunen legearen markoaren barruan.

Prozedura, egutegia eta aplikazioa:

Aukera hau dekretu bidez arautuko da, eta indarrean egongo da 2018/19 ikasturtetik aurrera aplikatzeko.

PLANIFIKAZIO BATZORDE TEKNIKOAN EDO SEGIMENDU BATZORDEAN BERARIAZ LANTZEKOAK:

- Lan Eskaintza Publikoen ereduaren eta prozesuaren berrikuspena eta egokitzapena, oinarriko araudiak ezartzen duen markoaren barruan: maiztasuna kidegoka, egutegiaren egokitasuna, prozesuaren hobekuntza-aukerak (epeak, gora-jotzeak, epai-mahaiak...), LEP



Urbitarte, 4 - 48001 - BILBAO

bateko oposaketa-faseko nota beste LEP baterako gordetzeko posibilitatea, beste formatu bateko azterketen aukera (test formatua, esaterako), merituen ponderazioa baremazioan, eta beste.

- Bitartekoen egonkortasuna
- Hezkuntza-administrazioaren prozesu nagusien maiztasuna
- Hezkuntza Beharren Indizea eta irakasle-plantilen indartzea
- Ikasle errepikatzaileak ratioetan
- Ordezkapen-zerrenden zonaldekako sistema
- Lizentziak, baimenak eta beste baldintza batzuk
- Administrazio-langileak ezartzea HH eta LHko ikastetxeetan
- Lanbide Heziketaren Euskalduntze Plana
- Bitarteko irakasleen aukera ordu lektiboak murrizteko adinagatik
- Ikastetxeetako beste ardura batzuetarako pertsonalaren egoera eta plantilak: PREMIA plana, liburutegien arreta, psikologoak, aholkulariak, euskara indartzeko irakasleak, etab.

SEGIMENDU BATZORDEA

Administrazioak eta akordio hau sinatzen duten sindikatuek Segimendu Batzordea eratzen dute; aipatutako erakundeen ordeztagaitasunaren proportzio bera zainduko da.

Batzorde horrek hitzartutakoa interpretatzeko, aztertzeko, jarraipena egiteko eta zaintzeko eginkizunak izango ditu, eta akordioan jasotzen diren puntuak zehazteko ardura hartzen du.

AZKEN XEDAPENA

Dokumentu hau izenpetzeak ez du esan nahi hemen egiten diren baitapen guztiak alde guztiek ahobatez eta osotasunean onartzen dituztenik; bai ordea, hemen jasotzen diren proposamenak onuragarri izango direla irakasleen lan-baldintzen eta hezkuntza-sistemaren hobekuntzarako.

Halaber, akordio baterako proposamen hauek irakasleen lan-baldintzen akordio global berria lortzeko abiapuntutzat hartzen dugu Hezkuntza Sailak eta sindikatuek. Akordio global hori landu, negoziatu eta lortu bitartean, eta Saila eta sindikatuen arteko negoziazioak etengabe eta normaltasun-giroan garatzen direlarik, hemen proposatzen diren neurrien aplikazioaren bitartez irakaskuntza-zerbitzu publikoa eta irakasleen lan-baldintzak gero eta hobekiago izan daitezkeen ahalegintzeko konpromisoa hartzen dugu Hezkuntza Sailak eta adostasuna adierazten dugun sindikatuok.

Hori guztia adierazitako baldintza eta moduetan bideratzeko asmoz, kasuan kasuko Mahai Sektoralal, Planifikazio Batzorde Teknikoak eta akordio honen Segimendu-Batzordeak deituko dira kronograman zehaztutako datetan.

Helburu horiek guztiak gogoan, eta proposamen honetako neurriak aurreikusitako uneetan indarrean ezartze aldera, Hezkuntza Sailak eta alde sozialaren gehiengoak dokumentu hau izenpetzea adosten dute.



**PROPUESTA PARA UN ACUERDO
MESA SECTORIAL DEL PERSONAL FUNCIONARIO DOCENTE (14/05/2018)**

El Departamento de Educación en la Mesa Sectorial del día 23 de septiembre de 2017 les presentó a los sindicatos un primer documento titulado "Propuesta para un acuerdo", y el día 20 de diciembre del mismo año un segundo, más desarrollado y enriquecido que el anterior. En la Mesa de 26 de enero de 2018 se hizo la valoración del último documento. Desde entonces, y continuando entre tanto con la negociación, se celebraron otras dos reuniones de la Mesa Sectorial: el 18 de abril, en la que se presentó una versión más amplia, profunda y detallada de la propuesta de acuerdo, y la última, el 4 de mayo. Sin embargo, por la parte social se solicitó se revisaran determinados puntos y que se detallaran más el calendario y los mecanismos de garantías.

El documento actual quiere dar respuesta a esas solicitudes, y se presenta en esta reunión con la intención y voluntad de que recoja un primer acuerdo base amplio y que constituya el punto de partida para un acuerdo global y más extenso.

Esta propuesta de acuerdo engloba un total de catorce propuestas específicas, agrupadas en cuatro apartados generales.

EMPLEO, INTERINIDAD Y ESTABILIDAD

1. Ofertas públicas de empleo
2. Medidas para reducir la interinidad
3. Estabilidad del personal interino
4. Periodicidad de los principales procesos de la Administración Educativa

SUSTITUCIONES: RÉGIMEN, LISTAS Y GESTIÓN

5. Sustituciones
6. Listas de sustituciones

PLANTILLAS DE PERSONAL EN LOS CENTROS

7. Reforzar las plantillas de maestros/as en Educación Infantil
8. Reforzar las plantillas docentes en función del índice de necesidades de los centros
9. Plantillas de profesorado en Formación Profesional
10. Asignar personal administrativo en Educación Infantil y Primaria

CONDICIONES LABORALES DE LOS DOCENTES

11. Reducción de horas lectivas por razón de edad
12. Complemento por incapacidad temporal
13. Licencias, permisos y otros
14. Compatibilidad



Araba
Eulogio Serdán 5 - 01012 Gasteiz
☎ 945 14 11 04 ☎ 945 14 43 02
araba@steilas.eus

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
HEZKUNTZA SAILA



**EMPLEO, INTERINIDAD Y ESTABILIDAD****1. OFERTAS PÚBLICAS DE EMPLEO**

El Departamento de Educación hace suyo el objetivo de reducir al máximo posible la interinidad.

El Departamento de Educación manifiesta el compromiso de convocar Ofertas Públicas de Empleo por un mínimo de 5.000 puestos de trabajo a lo largo de la legislatura 2017/2020 en los cuerpos docentes, considerando que se trata de la medida más eficaz para bajar la interinidad y dotar de mayor estabilidad al Sistema Educativo, manteniendo su objetivo de crear el máximo número posible de puestos, y con el compromiso de agotar para ello todas las vías que ofrece la normativa vigente.

Las convocatorias de OPE se dividirán año a año, como sigue, según las condiciones actuales:

- En 2017 se convocaron 740 puestos en el proceso selectivo del Cuerpo de Maestros/as.
- Para 2018 están convocados 1.511 puestos para los cuerpos de Profesorado de Educación Secundaria y de Profesorado Técnico de Formación Profesional.
- En relación a la Oferta Pública de Empleo de 2019, se puede adelantar lo siguiente: una vez estimada la tasa de reposición de 2018, será de alrededor de 1.800 puestos y dirigida al cuerpo de maestros/as. Asimismo, se ofertarán otros 95 puestos para los cuerpos de Enseñanzas Especializadas (Escuela Oficial de Idiomas, Conservatorio de Música...).
- En 2020, se volverían a convocar de nuevo los cuerpos de Profesorado de Educación Secundaria y de Profesorado Técnico de Formación Profesional, alrededor de 850 puestos en total.

En esta misma línea, y cuando entre en vigor el acuerdo suscrito a nivel estatal, el Departamento de Educación podría ofertar otros 500 puestos de trabajo para los cuerpos docentes, a lo largo de esta legislatura.

Por último, se analizará la posibilidad de realizar procesos de consolidación, con la intención de aprovechar cualquier resquicio que ofrezca la normativa vigente en cada momento.

Procedimiento, calendario y aplicación.

- Todos los procesos y temas a los que así corresponda por normativa serán analizados y negociados en Mesa Sectorial o en Comisión Técnica de Planificación.

2. MEDIDAS PARA REDUCIR LA INTERINIDAD

Con el objetivo de reducir todo lo posible la interinidad mediante el compromiso principal de las Ofertas Públicas de Empleo, y en aras a reducir a mínimos la interinidad estructural del sistema, el Departamento de Educación pondrá en marcha otras medidas importantes:

- Con el objetivo de adecuar el modo de provisión de las **COMISIONES DE SERVICIOS**, únicamente se va a limitar a los casos excepcionales y regulados, tal y como ya está



procediendo el Departamento en los últimos años.

